

## ERROMESAREN HIRU KANTU

Idoia Udabe  
*Usurbil, 16 urte*

*Mixioetatik itzuleran  
hil zitzaigun osaba  
Julianentzat*

### I.-PROMETEORENA:

Pisu astuneko motxila bizkar gainean hartu,  
gainezka egin arte ilusioz toperaino bete,  
eta irribarrea aurpegitik ezabatu gabe  
ekin zenion bideari, ozeano urdina zeharkatuz.

Haurtxoen begirada tristeak bultzaturik agian  
bilakatu zinen jainko jeloskorren begirada  
zorrotzaren itzalpean  
itzaleko, asetuen munduari sua lapurtu  
eta bentzutuen etxera argia garraiatzen saiatze-  
ko.

Oinazearen menpe zeudenen oihua deiadar zi-  
tzaizun,  
zure bihotz zabalean hunkipenak oherik izan  
zezan,  
urrikalpena sendo zedin, gogo berpiztu, inda-  
rra bermatu,  
ahulenen irribarreak ere zerurik izan zezan, izan  
zezan zertaz elikatu.

Berdintasuna, argia, zoriona, maitasuna...  
Jainko beltzak bidalitako arranoaren hegaldi  
orok  
samina dakar, ordea, atzaparretan gorderik,  
gaitzaren euria hedatuz. Zu heriotzaren kresalaz  
blaituz.

Eta azken urdin infinitoa zeharkatzean zure  
begiak  
heriotzean itxi zenituen, min isilaren ikur, leku-  
ko.  
Agur goiztiar mingarria damaizut, leialtasunez  
eihoa, eta agintzen  
berriro besarkatu arte izango zaitudala bihotze-  
ko.

## II.-ATLASENA

“Burrukaren erdian ilunpetan etsita”, zioen poe-  
tak  
eta, hainbatetan ilunpeak etsi bazintuen ere,  
ez zenion uko egin, burrukaren erdian,  
mundua bizkarrean hartu eta salbaziorako bide-  
ari.

Denbora ez da alferrik igarotzen eta  
egunero berriztatuz begien kliskada dirauten  
xede xume ttipiak,  
itsasoaz haraindi bultzatu zintuen helburu nagu-  
sia  
ipar ifarra bailitzan han goian beti,

gauaren bular beltza pizten zuen argi.  
Inoiz ez zenidan esan noraino zenituen  
adierazpenik behar ez duten hitz haundiak  
bihotzean grabaturik,  
noraino egin zenituen zure arimaren haragi,  
bizkarra zartatua izan arren hainbeste arduraz  
eta zartatuak eskuak hainbeste leuntzeagatik  
mina,  
hainbeste laztantzeagatik goi-lautada pobreeta-  
ko haurrak.  
Orain, bertso hau eskaintzen dizudanean,

zamak eraman bazintuen ere, ez zintuela  
gutziz bentzutu deiadarkatu nahi dut. Saiatzen  
ez dena  
dela lehia honetan galtzaile bakarra eta zu beza-  
lakoen begietan  
betiko iraungo duela hasierako irrits handiaren  
distirak.

### III.-SISIFORENA:

Gaua da. Gaez nago eta zuri diotsut:  
Noraino zaigu gizon-emakumeoi zu bezalakoen  
abesti utopikoaren melodia ahanztea zilegi?  
Noraino egin diezaiokegu aldatz gora ekitera  
bultzatu zintuenari muzin?

Nik, bederen, doinu horren epeltasunean egin  
nahi dut  
itxaropenen muino infinitora,

ametsen norabidea galdu gabe, salbamen-zama-  
ren  
gurutzea nire besoekin gorantz, arrastaka, arras-  
taka.

Ez zait inporta beti harrapatzeaz gelditzen bazait  
ere  
muinoaren gailurrean suposatzen den arrosa  
zuria;  
ez zait inporta munduak maldan beheara irrist  
egiten badit  
eta jauzian zanpatzen badizkit haraneko bitxilo-  
re xumeak.

Badakit bidaiarako jaiok garela eta bidaiatzea  
dela  
askotan bidaiaren xedea, esperantza ttipi bat  
gure  
erromes-makilaren muturrean dirdirka: non-  
bait, Jauna,  
nonbait, badakit, seguruenik bidaikide izango  
zaitudala.